



Jubenil mailako onenak lehian Gipuzkoako XII. Txirrindularitza Klasikoan

TOLOSA ▶ Herriak lehenengo aldiz hartuko du «maila handiko» proba, 750. urteurrena dela eta

PARTE-HARTZEA ▶ Guztira 175 txirrindulari ariko dira eskualdean, 95 kilometroko ibilbidean ▶ 7

IBARRA ▶

Olinpiada Txikiari ekingo diote gaurkoan

Hauspoa elkarteak antolatuta 13 taldek hartuko dute parte ▶ 6



Lehen pitxerrak hustu dituzte Garagardo Azokan

ALEGIA ▶ III. ediziora heldu da aurtengoan Garagardo FERIA. Atzo zerbitzatu zituzten mota guztietako lehen garagardoak, eta gaur espero dute bertan jende gehien biltzea. J. ASTIBIA ▶ 6

TOLOSA ▶

Indiarrak liluratu ditu Hodeiertz abesbatzak

Taj Mahal mausoleoan abesten duen lehen taldea da Tolosakoa ▶ 3

Udaberriko sustapena

Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua **14€**

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)



**BAILARAKO
ESKAINTZARIK
ZABALENA**

ORIXE Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOA

Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Natura inguruneko kirol
ekintzen gidaritza

943 65 13 87

E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra



GIZARTEA ▶

ERREDAKZIOA

Abenduaren 12an gertatu zen. Marokon oporretan izan zen tolosar talde baten autobusaren azpitik bi marokoar irten ziren; Tolosako tren geltokian. Bi gazteek 1.200 kilometro egin zituzten autobusaren azpian. 18 ordu zintzilik, mugitu gabe, Tangerretik Tolosaraino, zero gradu inguruko tenperaturarekin, Iberiar Penintsula guztia zeharkatu. Hona heldzean, autobusen keak belztuta, pasatako hotzak gaixotuta eta mundu berriak aurkez zitzakeen ezustekoek beldurtuta ageri ziren. Lehenengo orduantxe jaso zuten.

Gau osoa autobusean lotan igaro zuten bidaiari haiek, txaloka hasi eta beren arropak, janariak, oinetakoak eta bestelakoak ematen hasi ziren. Autobusetik jeitsitako 40 lagun inguruk ezin sinets zezaketen ikusitakoa.

Egun, 14 eta 18 urteko bi marokiarrak, Jawad eta Youssef, Tolosan bizi dira. Beraien egonaldiak hamaika pasarte eta traba izan ditu hilabete hauetan. Gertatutako guztiak kontatzeko, Tangerren izan dira Iñaki Elola, Iñigo Asensio eta Isitxo Larrañaga tolosarrak eta Antonio Martin ordiziarrak; helburua, *1.200 Kilometro* izena izango duen dokumentala grabatzea.

Inauterietako asteartea aukeratu zuten martxan jartzeko. Festa egunetako ajea ahaztu eta goizeko ordu biak inguruan ekin zitoten bidaiari furgonetaz. «Arraroa zen Inauteriak amaitzeaz zirela jendea agurtu eta Marokora gindoazela azaltzea», onartu dute protagonistek. Asteazken bazkalosterako ferrytik jaitsi eta Tangerreko portuan ziren. Bertan, Youssefen anaia eta itzultzailea zain zituzten, bi gazteen senideak ezagutu eta dokumentalerako materiala grabatzen hasteko.

Lehenengoan komisaldegira

Minutu gutxitan ezagutu zuten, baina, Marokoko erreallitate. Mohamed VI.aren erregimenak dituen hainbat salatarietako batek, polizia irteitu zion grabazioarekin hasi eta minutu gutxira. «Zabortegi batean jaten ari ziren ahuntzak grabatzea ez omen zitzaizten gustatu, eta atxilotu egin gintuzten», dio Isitxo Larrañaga.

**Taxi lizentzia
kotxearekin
salgai Tolosan
649 03 52 32**

'1.200 Kilometro'

Abenduan Tolosara heldu ziren bi marokiarrak gazteen historia kontatzeko, dokumentala grabatzen aritu da lagun talde bat Tolosan eta Tangerren



Larrañaga, Asensio, Elola eta Martin, bi marokiarrak baten familiarekin, hauen ebeko atarian. HITZA



Iñaki Elola eta Iñigo Asensio elkarrizketa bat egin baino lehen, Jawaden senideekin. HITZA

gag. Arratsalde guztia komisaldegian pasatu zuten ondorioz. Hiruzpalau poliziaburuk hartu zieten deklarazioa, banaka, euren artean kontraesaten ez zirela ziurtatuz. «Guk etengabe turistak ginelan esan genien, ez baitzen komeni Iñaki kamara profesionala zela esatea, eta barreari heldzeko arazoak izan genituen frutategi bat zuela esan zienean», oroitzen du umoretsu Antonio Martinek. Irudiren bat ezabatu behar

izan zuten arren, bertatik irteerari, egoera hobeto ezagutzen zuten; Tangerren oso argi ibili behar zen grabatzen zenarekin.

Familia bisitatzera

Hurrengo egunean, itzultzaileak goizean jaso behar zituen, beraien familiak ezagutzeko, baina ez zen agertu. Denbora gaitzen ibili beharrean, Tangerreko merkata ikustera joan

ziren, zenbait unetan ezkutuko poliziak jarraikatu zituztela ohartuz. «Ez zen erraza; hainbat herritarrek izugarriko beldurra diote kamarari eta izan zen grabatzen ari ginelako haserretu zenik ere. Polizia etengabe gugandik gertu, jendearekin ere kontuz ibili beharra... Horrela zaila zen lan egitea», dio Iñaki Elolak.

Arratsaldean agertu zen azkenik itzultzailea. Nagusiak lanetik irteerari utzi ez zionez, ahal

POLIZIAREN TRABAK

«Zabortegi batean jaten ari ziren ahuntzak grabatzea ez omen zitzaizten gustatu, eta atxilotu egin gintuzten»

SENIDEEKIN

«Arreba gazteena, anaia euskal Herriko bidalitako opariak irekitzen ikustea hungigarria izan zen»

LEHEN PROIEKZIOA

Emaitza uda alderako izango da ikusgai eta Leidor berrituan lehen proiektzioa egitea espero dute

izan zuenean hotelera joan eta han egon zen 3 orduz tolosarren zain. Orduan izan zuten lehenengo aldiz senideak ezagutzeko aukera. «Arreba gazteena, 10 urtekoa, anaia Euskal Herriko bidalitako opariak irekitzen ikustea hungigarria izan zen», aipatu du Iñigo Asensio. Youssefen senideak ezagutu zituzten ostegunean, eta Jawadenak ostiralean. Bien gurasoak elkarrizketatzeko aukera izan zuten egun horietan eta baita beraien anai-arrebekin, lagunekin eta ezagunekin mintzatzeko ere. «Bi familiek ikaragarri eskertu ziguten euren semeen alde egindakoagatik. Larunbatetan etxekoekin hitz egiteko aukera izaten dute Youssefek eta Jawadek, eta horregatik etxekoek Tolosan egindako harreraren berri bazuten», gaineratu du Larrañaga. Tangerreko hainbat txokotan aritu ziren grabatzen eta berri ere poliziarekin egin zuten topo ostiralean.

Arazo guztiari aurre egin ondoren, irudi mordoarekin itzuli ziren Tolosara, eta azken asteetan falta zaizkien irudiak bildu eta dokumentalari forma ematen hasiak dira. Istorio honen guztiaren emaitza uda alderako izango da ikusgai, eta lehen proiektzioa Leidor berrituan egitea espero dute. Ezustekoak ere, noski, gorde dituzte orduko. Bitartean, zain egon behar.

TOLOSA ▶ KIROLA



Jubenil mailako mutilak Pasai Donibaneko estropadetan. HITZA

Hasi da Euskadiko Batelen Txapelketa

Tolosaldeko Arraun Klubeko lau batel lehiatuko dira, gaur, Donibane Lohizunen

E. EZEIZA

Gipuzkoako Txapelketa amaitu ondoren, Batelen Euskadiko Txapelketa hasiko da gaur Sokoan, Donibane Lohizunen. Tolosaldeko Arraun Klubeko lau batel lehiatuko dira bertan. Jubenil-senior neskek txapela izango dute helburu;

gainontzeko hirurek aldiz, finalen sartzea.

Sailkapen probak 15:30ean hasiko dira gaur. Bertan, maila bakoitzetik lau sailkatuko dira, hurrengo egunean, 11:30ean, jokatu den finalerako. Gainontzekoek berriz, garai berean, Federazio Torneoan jardungo dute.

BEDAIO ▶ KULTURA

Erakusketa eta ibilaldia Asteburu Kulturalean

E. EZEIZA

Gaur hasi, eta igandera bitartean, hainbat ekitaldi ospatuko dituzte Bedaion, Artubi Elkarrean antolatutako Asteburu Kulturalean harira.

Hasteko, gaur, 21:30ean, Zine-Kluban, filme bat ikusteko aukera izango dute herritarrek. Hurrengo egunean, larunbatean, 16:00etan, Bedaio-ko errotara bisita egingo dute.

18:00etan, berriz, umei dantza ikastaroa emango zaie, eta ondoren, denak, taloak egitera elkartuko dira. 20:30ean, arratsaldean egindako talo horiek dastatzeko aukera izango. Asteburu Kulturalean amaitzeko, Azkaraten barna ibilalditxo bat egingo dute, eta ondoren bazkaria.

Bestetik, gaur eta bihar, Barentina Jauregiren koadroak ikusgai daude elkartean.

TOLOSA ▶ KULTURA

Tolosar ahotsek indiar publikoa irabazi dute

Agrako Taj Mahal mausoleoan abestea lortu duen lehen abesbatza izan da Hodeiertz; atzo amaitu zuen Indiako bira



Hodeiertz abesbatza Agrako Taj Mahal mausoleo mongoliarren aurrean. HITZA

ESTI EZEIZA

Indiako publikoa bereganatzea lortu du Tolosako Hodeiertz abesbatzak. Atzo amaitu zuten eskualdekoek lurralde hauean barrena egindako bira. Delhiko Ficci antzokia gauzatu zuten, hain zuzen ere azken emanaldia. Hainbat kontzertu eskaini dituzte Bangalore, Bombay eta Agran hirietan. Tolosako abesbatza izan da Agrako Taj Mahal mausoleo mongoliarrean kantatu duen lehen taldea.

Bidaia hau Indiako kultur arduradunekin hitzartu zuten. Miguel Arretxe da Hodeiertz abesbatza egiten ari den biraren antolatzaileetako bat, eta berak nabarmendu duenez, «abesbatza batek Taj Mahalen abesten duen lehen aldia izan da». Taj Mahal mausoleoa da Indiako turismo gune garrantzitsuena eta agintariak Ricky Martin abeslariak bertan egin asmo zuen kontzertu bat bertan behera utzi zuten erakinean sor zitezkeen kalteen beldur baitziren.

Ikusmina herritarren artean

Bestetik, Bangaloren izan zuten arrakastaren ondoren, asateazkenean Mumbaiko Tata Theatre-en abestu zuten. Adituen esanetan, Asian akustika onena gordetzen duen auditorioa da hau. Bertara 1.000 lagun inguru hurbildu ziren Tolosaldekoen ahotsak entzuteko. «gogoz» txalotu zituztelarik. Tata Theatre musika eta dantza indiarrek aurkezteko eginga dagoen lehenengo Indiar antzokia da. Abesbatzako esanetan, «Bangaloreko antzokiak baino akustika hobea zuen». Aurreko emanaldian bezala,

euskal folkloreko zortzi pieza jo zituzten, horien artean *Maitia nun zira* Etchaunen abesti ezaguna, eta Mikel Laboaren *Nerea izango zen*. Entzuleen artean zonaldeko buruzagi eta ordezkari ugari bildu ziren. Hauek gain, era sinbolikoan, Mumbaiko Paranjoti abesbatza ere lekuko izan zen. Talde honek, duela hiru urte, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuten. Hala geratu zitzaizen «orotzape onaren» ondoren, ez zuten emanaldi hau galdu nahi izan.

Hodeiertz izan da Indiako gobernua formalki, bira bat egiteko gonbidatu duen Euskal Herriko lehenengo abesbatza. Bira hau, Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE), Indiako herri-herri Kulturaleko Kontseiluaren eta Tolosako Udalaren arteko elkarlanaren ekimena izan da.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laborategiak. Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.

Mantentze-lanak. Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalebe eta Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Eibarrituak. Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.

Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitetz: 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritza. Asteburuetan libre. 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserrria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua Belate Iarheam. 75 m2.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko. 17. 140 m2. Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisua Larramendi kalean. 112m2.
Salgai (Berrobi). Pisua, baratza eta txabola. 168,00 euro.
Salgai (Tolosa). Lokalek. Amarratz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibilbidean.
Salgai (Ibarra). Lokala 60m2.
Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leizorren.
Alokatzeko (Alegia). Pisua segituan alokatzeko.
Alokatzeko (Ameseta). Pisua segituan alokatzeko.
Alokatzeko (Anoeta). Pisua guztiz prestatua.
Alokatzeko (Ibarra). Pisua. Julian Gayarre kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal girotua, Foru kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

VILLABONA ▶ BASERRIA

Garaian garaikoa

Aldaketa ekartzen du udaberriak baserrira. Eguna luzeagoa da, eta egin beharreko lanak ere ez dira berdinak. Villabonako Agaizberri baserrian urtaro berriko martxara ohitzen ari dira



Villabonako Agaizberriko Rosa Arregi eta Juanbo Beldarrain, baserriaren atarian, lanari ekitako prest. ANAKOL OTEA / AGAZZI PRESS



Esene behietatik bizi dira Agaizberri baserrikoak. I. OTEA / AGAZZI PRESS

OHANA ELDUAIEN - BERRIA

Erabat aldatzen da bizia baserrian udaberriarekin batera. Lanak biderkatu egiten dira, eta egunak luzeagoak direnez, lan ordu gehiago dago. Neguan lasaigo biltzen dira Villabonako Agaizberri baserriko Rosa Arregi eta Juanbo Beldarrain. Denbora gehiago izaten dute berresentzako Agaizberri baserrian esne behiak dituzte Rosak eta Juanbo, eta handik bizi dira. Batez ere badute etxean bertan, eta Rosak Zizurkilien dagoen amaren jacetxean ere sartzen ditu ordu batzuk, baraztean eta. Lan lotua da esneak dagoen egin egin behar da, eta kito. Ono antolatzen ariazten diren arren, ez dago ordutegi finkorik, eta asteburuetan ere badaude egitekoak.

Behi esneak dira batik bat bikotetaren lotura. Eneka iparlati saltzen diote, eta esnerik ez badago ez dago diru sarriarrik, beraz, behien bueltan di-

tzen dira gehienbat. Goizeko seietan jotzen du Agaizberri baserrian bikote honen logelako iratzaingalak. Eta sei eta erdieta rako hasten dira lanean. Behiak lasai egoten direnez, simaurra ateratzen dute aurrena. Juanbo abereak josten gertatzen da, eta Rosak haurrak prestatu eta ikastolara eramaten ditu. Buzilatu, eta segil!

Besotiatik bueltan hartu gaitu Rosak. Baserria iritsi, autoa utzi, eta zuzen joan da esne tankean dagoen gelara. Joan zen astean jaso zen tabaki tokietan ama josten erabiltzako makina garbitu, eta ukulura. Udaberriko belar berde berria zabaldu dute ukulu ertean, baina aurrena ganbela garbitu behar dautkate. Behiek jan jabe utziako belarra berdu.

Belar berria preziatua da, eta esne behiak ematen die. Horrela esne hobea ateratzen dela. Izan ere, behiak indartsuago daude berdearen bitartean. Hasi atzotik sobratutako belarra biga gaiet ematen die.

«Hemen dena aprobetxatzen da», dio Juanbok. Orain hasi dira belar berdea bildu eta behiei ematen. Neguan silo berriekin jan dute Lehenengo udaberri-udan egindako lanetik. Hustu antzen dute laz betetako belar zuloa, eta aurtengo belar berria biltzeari ere egin beharko diote ekain amaiera aldera.

Udaberriko egitekoak

Bilduko duten belar hori lortzeko simaurra erabiltzen dute ongarririk. Txiza asko erabiltzen da gaur egun, baina bikote horiek ez du gustuko. «Txizarekin asko hazten da belarra, baina hainbeste hazten denez hazteak ohertu egiten du askotan, eta hura mozteaz askoz zailagoa izaten da gero».

Normalean, udaberri-uda aldean asteburu bat aprobetxatzen dute belarretarako. «Nire amak libre dagoenean aprobetxatzen dugun», dio Rosak. Zeila



Rosa Arregi, igitariarekin kolpeka arba garbitzen. I. OTEA / AGAZZI PRESS

ugari dituzte belarretan, eta haietako guzietako belarra jasotzea ez da lan makala. Aurrena moztu egiten dute, gero bildu eta belar zuloa eraman. Han, ondo-ondo zabaldu ostean, traktore txikiarekin zapaldu egiten dute. Belar zuloa betetakoan gertatzen denarekin bolak egiten dituzte, eta ondu ere egiten dute. Baina hori belarra ondo heldutakoan egiten dute. «Euri asko egiten du berriki, eta belarra oso bustia dago oraindik. Egundik gehiago hartu behar du belar honek, eta gehiago heldu».

Lehen segarekin egiten zen belar mozea, segarekin moztu eta eskuarekin bildu. Orain, makina berriak eta dituzte, eta hobeto moldatzen dira. Segar ez du balere gustuko Juanbok: «horrek gerraiki izortzen ditu!» Sali txiki bat egiteko ondo dago, baina, hasi zaitzen bada, lur sail hasek denak segarekin moztuko du. Egin da, ez dituzte biler mator. Zeilaik, zeilaik eta zeilaik dituzte, bai bizitzeko lurretan, eta baita Zizurkilien ere. Eta gehienak, denak ez esateagatik, belarretarako erabiltzen dituzte. Baratzetarako dituzten zatiak kenduta.

Dizurako elodien dute baratzetara. Eta badute kondantzak egiten dutenekin. Handik jaten dute, eta handik ematen diote seme-alabei ere. Ez dira jargela zaleak. «Nik badakit hemen zer ematen disidan haurrei», badakit zer jaten duten», dio Rosak. Garaian garaikoa ja-

ten dute, eta ez du ulertzen tomatena nola egin duten neguan. «Zerbat botako diote seguru. Ni salatu izan naiz hemen, negutegia jarrita, etxe ondoan babesean jarrita... baina ez dut forluz».

Garaian garaikoa, beraz, Orain, neguko jasotzen ari dira, ateratzen, landare berria erretzeko prestatzen. Ari belarri-ri gorri tira, alia eskuratzen, eta igitariarekin kolpeka garbitzen du. Arbia, porrua, baina, aza... Hori dena bildu, eta simaurra zabalduko dute. Gero lurrari buelta eman, eta prestatzeko. Pilata sartuko dute gero, artxo erin, bakak, tomatenak...

Gazteak eta baserria

Seme-alabek ere laguntzen diete lanean, bai baraztean eta bai ukulutan. Etorritzena seme-alabek baserriko jardunari eustea gustatuko litzaizkela onartzen dute, eta garterak hura gustuko diela esaten die. Baina, nolahi ere, argi dute ezin dela jakin zer gertatuko den. Gainera, ez jarraitzen erabakiko behute, hori onartu beharko dutela badakite.

Izan ere, orain baserriari eustea gero eta zailagoa dela dio Rosak. «Bai laguntzak ere murriztu dira, eta orain beste modu batera biltzera ohiu gara. Lanokian zortzi ordu sartu, eta hortik ateratakoan nahi duzuna egin dezakezu, baina hemen badakizu zer dagoen». Asteburuan lan egitera

ez dago ohituta jende asko, baina baserrian egin egin behar da.

Ono antolatuz gero, ordu libre batzuk ere har daitezke, baina gauza batzuk derrigor egin behar dira. Behiei jaten ematen egin behar zate, jazi ere bai. «Gaur egun, kanpoko jendea etorri, eta museo gisa ari dira jartzen baserriak, ez dira bertan biltzen jartzen. Aste-buruetarako daukate».

Baina baserriko lan gogorra denik ez dute esaten, lotua baitaik. «Antolatzea da kontua», dio Rosak, behin eta berriz. «Gu ondo antolatzen gara, batak hementik kanpo gerbait egin nahi duenean, bestea gertatzen da baserrian, eta hurrena alderantziz». Goizean jakit, eta noiz zer egin behar dute argi daukate, martxa jarria dutelako dagoeneko. Hori bai, baturatzen inprobisatu ere egin behar izaten dute. «Lehenengo astean, behi bat erdiu zen bazkalzen ari gineela. Han geratu zen gure bakariala».

Udaberriaren eta udan lan gehiago izaten dute etxetik kanpo, eta eguna luzeagoa denez, kanpoko lanetan denbora gehiago pasatzen dute. Ondorioz, etxeko lanak atzeratuta ere ibili izan dira. «Baina ez da ezer gertatzen! Bihar ere argituko du eguna», diote. Ahal dutenean egongo diote Behietatik bizi dira, eta lehentasuna zinez duen oso argi daukate; hortik aurrera, nahikoa dena egin dugu, eta gusturako».



Juanbo Beldarrain, sega zorrozetan. I. OTEA / AGAZZI PRESS

Behien bueltan

39 buru dituzte etxean guztira: 20 behi, urtez behoko 11 behi gai, eta urtez goiko beste 8 behi gai. Bi ukulutan dituzte, handienak baserriaren emakinek ukulutan, eta besteak atarian prestatuta duten trikiago batean. Hasienean bueltan egiten dute lan gehien. Behiek berriak ematen duten lana bien artean egiten dute, eta haietarako belarra lantzeko ere kentzen dizkie ordu batzuk.

Iparlati saltzen dioten esnea eskuratzeko, jateko ematen diote behiei, aspak atara, jazi, zaindu... Eneka ematen duten 20 behiak goizez eta arratsalde jaten dituzte, makinarekin, eta handik seguitan garbitzera joaten da tuberiaren sistema batera. Behin garbituta, tankera bideratzen du sis-

temak, eta han 2-3 gradutan edukitzen dute pilatuta. Gero, bi egunetan behin iparlotokak joaten dira, esnea biltzera.

Behiak inzesminazio artifizialek emaitzen dira, aita kolagoan aukeratu. Aldizkarian datoz atalagalk, bakotza bere arzak eta datu guzikiak. Amagaitaren ezaugarrien arabera aukeratu da aita. Behin aukeratu, albatarrak hainza sartzen die. Horrela, urtero 15 bat tabaki jartzen dira Agaizberri. Eneka esnetarako erabiltzen dituzte, eta arrak, berriz, haragitarako. Hori bai, esnearen prozesu guztiak eta animaliek kontrol guztiak pasatzen dituzte. Dena behar bezala jateko ondo zaintzen dute, eta mimatu.

Behietatik bizi baitira, behiek, behiei lotura. ◀

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Garagardo ferian murgilduta daude alegiarrak

J. Astibia ▶ Atzo iluntze partean III. Garagardo Feria ireki zuten herriko pilotalekuan. Bertan 8 garagardo mota jarri dituzte aukeran, gorriak eta beltzak, garratzagoak eta leunagoak, Europako herrialde desberdinetakoak. Edari freskagarriarekin batera, jaki goxo askoak ere dasta-

tzeko aukera izan zuen bertara joan zenak, izan ere, saltxitxak, solomoa, gazta, ukondoa —230 kilo— prestatu zituzten, 300 lagunentzat baino gehiagorentzat mahaiak ere atonduta izanik. Gaur beste aukera bat, ona gainera: Intxurre futbol taldeari lagunduz bidenabar. JAIONE ASTIBIA

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

IBARRA ▶ KULTURA

Herritarren jolaserako tenorea da

XIII. Olinpiada Txikia egingo dute asteburu honetan hasita, 12 elkartek



IKE-Deportivakoak, aurreneko edizioetako batean. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Gaur bertan hasiko da Hauspoa elkarteak antolatutako Olinpiada Txikia. Mahai-jokoe-kin ekinen diete; musean, Deportiva elkartearen eta eskoban, Xeplan. Hori 15:30etik aurrera izanen da.

Aurtengoarekin hamairugarren urtez eginen duten Olinpiada Txiki honetan, herriko 12 taldek parte hartuko dutela jakinarazi dute Hauspoa elkartetik. Hain zuzen ere horixe dute helburu joko hauek: herriko elkartearen artean harremanak sortuz edota sendotuz, herritarren arteko giroa eta laguntasuna sustatzea eta bultzatzea, «herri giroa sortzea», alegia. Jakin, talde bakoitza batz bestez dozena bat lagunez osatuta egonik, azkenerako jende mordoak parte hartzen duela.

Olinpiada hauetako frogak batzuk finkoak dira, hasierahasieratik egiten direnak: karta jokoen, tokaren, bola-jokoa- ren edota ibilaldi neurtuaren frogak kasu. Hauetan jada «espezialista» ere izan daitezkeen lagunek parte hartzen dute besteak beste, beteranoenek hasi berriei erakutsiz.

Bestela, urtetik urtera berri- tuz eta erantsiz joan diren fro- gak ere badituzte, kirola eta kultura, uztartuz egiten dituz- ten ekintza hauetan. Horrela, edari-dastaketa eta sukaldari- tza frogak daude tartean. Az- ken horretaz baliatuz, olinpia- detan parte hartuko duten guz-

OLINPIADA TXIKIAK ▶

12 elkartek parte hartuko dute.

GAUR

15:30. Musean, Deportiva elkartearen; eskoban, Xeplan.

BIHAR

11:00. Toka eta bolo jokoan, Emeterio Arrese parkean.



lazko bola-jokoko saioa. J. A.

tien artean bazkaria eginen dute aurten ere, sukaldariek lehiaketarako platerak prestatzeaz gain, bazkariaren atonke- ta ere haien esku izanen baitu- te. Baina hori heldu den aste- buruan izanen da.

Bitartean, gaur-biharretan, zertan parte hartua izanen dute ibartarrek. Hori bai, anto- latzaileen eskariz, «garaiz ibil- tzea» eskertzekoa izanen omen litzateke, bizi-bizi ibiliz, giro alai eta jatorrean.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ezker abertzalea eta prozesu demokratikoa

Urte gogorak igaro ditu ezker abertzaleak. Beste euskal alderdiek Euskal Herria heriotzera kondenatzen duen estatu-tuak ahalbideratzeratzen zizkien eskumenen eta lau txanponen truke herri hau saldu zuten bitartean, ezker abertzaleak Euskal Herriaren eskubideak tinko eta irmotasunez defendatzeko hautua egin zuten.

Hautu hau egin izana ez zaio ez dohain atera ezker abertzaleari. Galdetu bestela bere semea 20 urte preso duen aitari, Euskal Herriaren alde bizia uzteagatik alaba galdu duen amari, euskarazko komunikabideak

bultzatzeagatik torturatua izan denari edota poliziaren jazarpena medio herritik alde egin behar izan duten gazteei.

Bide gogorra izan da bai. Saisiz beteriko bidea. Gainera, alderdi espainolez gain, beren burua euskaldun eta abertzale-tzat duten hainbat alderdik, lagundu ordez, oinetakoak kendu arazi dizkigute sasi bidea mingarriagoa izan zedin. Atxilotetak, egoitzen itxierak, manifesten aurkako erasoak, zinegotzieren lapurretak...

Bide gogorra izan da bai, baina ez antzua. Azken 25 urte hauetan autodeterminazio eta lurraldetasunaren alde ereindako hazia, urteetan ekaitz gogorretatik babestu eta ongarriz gozatu dugun kimua, hasi da bere fruitua ematen. Urte luzeetan ezker abertzaleak bakarrik defenditzen zituen aldarriak,

Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze eskubidea duela eta Euskal Herri osoko herritarrok garelako eskubide horren jabeak, hau da, autodeterminazioa eta lurraldetasuna; euskal alderdi, sindikatu eta eragile gehienek onartzen dute eta eztabaida politikoaren erdigunean kokatzea lortu dugu gainera.

Beste alderdiek Euskal Herria itotzen duen esparruaren zirrikitua beraien asmoak defenditzen dituen telebista edota beraien aginduetara egongo den polizia inposaturiko estatutu zuten bitartean, ezker abertzaleak arloz arlo eginiko lanak gaur egun inposaturiko estatutu politikoaren baliogabetasuna agerian utzi du, egungo markoak ez baititu Euskal Herriak herri bezala, guk herritar bezala ditugun beharrak asetzen eta

gainera gure herria pixkanaka itotzen ari baita. Horregatik, betidanik aldarrikatu izan dugu eremu demokratiko baten beharra, Euskal Herri osoko herritar guztion eskubide oro errespetatuko dituen estatus politikoa.

Gero eta gehiago gara lerro honetan indarrak biltzen ari garenak. Gero eta gehiago gara autodeterminazioa eta lurraldetasuna oinarri harturik, herritarren eskubideak onartuko dituen esparru demokratiko baten beharra aldarrikatzen dugunak, hauxe baita Euskal Herriak bere ohitura, kultura, hizkuntza... kontuan harturik bizirauteko duen bide bakarra.

Gaur egun inposaturiko estatus politikotik beharrezkoa dugun esparru demokratikora igarotzeko beharrezkoa da prozesu demokratikoa martxan

jartzea, denon artean erabaki ahal izateko eremu berri honen nondik norakoak.

Baina, zer da prozesu demokratikoa? Zein da bere helburua? Zer paper jokatzeko dugu herritarrok? Zein da ezker abertzalearen papera? Zein arrisku ditu prozesuak? Dударik gabe asko dira prozesu demokratikoaren inguruan egon daitezkeen galderak, are gehiago komunikabideetatik jasaten dugun intoxikazio eta manipulazioarekin. Horregatik, guztion artean egungo egoera eta geroako pausak argitu eta aztertzeko batzarra antolatuta da gaur, 10:30ean, Anoetako udaletxean. Ezker abertzalearen kidegoari deia luzatzen diogu bertan parte hartzera.

EGOITZ LUISA ETA MIKEL LARRION
(ANOETAKO EZKER ABERTZALEKO KIDEAK) ▶ ANOETA

TOLOSA ▶ KIROLA

Maila handiko txirrindularitza

Tolosak hartuko du gaur jubentil mailako txirrindulari onenak biltzen dituen Gipuzkoako XII. Klasikoa

IMANOL GARCIA

Tolosak hartuko du gaur jubentil mailako Gipuzkoako XII. Txirrindularitza Klasikoa, 15:30ean hasita. Lehenengo aldiz egingo da proba hau Tolosan eta aurten ospatuko den herriaren 750. urtebetetzea dela eta lekutuko da bertan. Jose Luis Arrietak, Gipuzkoako Txirrindulari Elkartearen lehendakariak, «maila handiko» lasterketa dela aipatu du, Espainiako Koparako puntuagarria, eta jubentil mailako txirrindulari onenak lehiatuko direla. Egun ospetsuak diren zenbait txirrindulari lehiatu ziren proba honetan eta emaitza onak lortu zituzten. «Iban Mayo bigarren



Proban parte hartuko duten Oriako Txirrindulari Eskolako kideak eta beren zuzendaria, Aitor Aierza. DV

eta Oriako). Horiez gain, Espainiako hainbat autonomi-selektzio, Kataluniatik eta Galiziatik etorriko dira. Arrietak zehaztu duenez, probaren ospea delata «talde asko etortzen dira abisatu beharrik gabe». Goi mailako txirrindularitza ikusteko aukera izango dute, beraz, eskualdean dauden kirol honetako hainbat zaletuk.

Eginbeharreko ibilbidea 95 kilometro ingurukoa da eta Tolosan bertan izango du hasiera. Helmuga izango den San Frantzisko etorbideetik abiatuta Lizartzara joango dira, berriro Tolosara itzuli eta Alegiatik Ordiziara joateko. Handik, Altxotik igaroz, Tolosara berriro. Ordiziara joan ondoren eta bueltan Altxora igo eta gero, Leaburu eta Belauntza igaroko dituzte. Azkenik, Ibarra pasatu eta amaiera Tolosan izango dute txirrindulariek.

izan zen eta Alejandro Valverdek lehenengo postua lortu zuen», gogoratzen du Arrietak.

Guztira 175 txirrindularik hartuko dute parte, horietako

batzuk hainbat selektzio ordezkatuz eta besteak Gipuzkoako talde guztien partaide gisara. Euskal Herritik, beraz, EAeko, Arabako, Bizkaiaiko eta Nafa-

rrako selektzioak, Iparraldeko bi talde eta Gipuzkoako talde guztiek hartuko dute parte, tartean Oriako Txirrindulari Eskolako bi taldeak (Belka Oriako

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. Galgo marraduna. Tola izena du. Gaztea. Azkenekoz Alegian ikusia. Deitu 658 70 59 81 zenbakira.

LANA

Sukaldaria. Lekunberriko taberna batean sukaldaria behar da. Deitu 948 50 40 05 zenbakira.

SALGAI

Txakurkumea. Seat Toledo TDI. 4 urte. 53.000 kilometro. Urtebeteko garantiarekin. 943 11 77 59.

▶ **hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak**

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

urteurrena ▶

I. URTEURRENA

Ramon Alustiza Gabiria

2005eko apirilaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Bere seme-alabak: Joxean eta Idoia Askasibar, Iñaki eta Mari Jose Palacios; bilobak, anai, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Urteurrenoko meza BIHAR, igandea, goizeko 11:00etan, Zumarragako Jasokundeko Ama Birjinaren parroki elizan izango da.

ZUMARRAGA, 2006ko apirilaren 22a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Eider Ijurko Ibarroko preso politikoak hilaren 27an beteko ditu 25 urte. Hori dela-eta asteartean, hilaren 25ean, argazkia aterako dute Ibarroko Benito Izagirre kultur ebkearen kanpoaldean 19:30ean.

Tolosa. *Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin* elkarteak antolatuta, bertso jaialdia izango da bihar 18:00etan, Usabal kiroldegian. Txartelak 10 eurotan daude salgai, Alegiako Iskiñan, Tolosako Xirimirin, Denak-en eta Klisk argazki dendan tabernan, Ibarroko Karlatzen, Arkaitz-azpin eta Danon Txokoan, Leaburuko Ostatuan, Ikaztegiatoko Toki-Alain eta Villabonako Apatxen eta Iru-aldetan.

Leizta. Hilaren 25ean iritsiko da Gaztebe Marbxa Leiztara eta Tolosara. Hori dela-eta, girotu aldera, gaur 18:00etan, Atekabeltzan, baserritarrez jantzita elkartu eta plazan herri kirol jokoak eginen dituzte, eta ondoren kalejira eta potea eginen dute. 21:00etan, berriz, afari autogestionatua Atekabeltzan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leizta. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina: elkarrizketak, Mundurako leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

UCERO ▶

Josetxo Zabaleta (Leizta).

Rio Lobos-eko arrolean ateratako argazkia bidali du Josetxo Zabaleta leiztarrak, Soriako (Espainia) Ucerro herrian. «Paraje zoragarria da, dena harrobiz eta leizez betea; leize horietan enbor hutsezko erlauntzak jartzen omen zituzten fraile tenplarioek; bestalde, sai asko ikusi genituen, eta igelak, berriz, ikusi ez, baina nabaritu bai, sekulako kantak egiten baitzituzten», dio berak.



PALENTZIA ▶

Arantza Iruretagoyena (Tolosa).

Palentziako (España) Carrion de los Condesen atara zuten argazkia neska tolosar honek: «Palentziako bideetan, Done Jakue bidean, paisaia hau aurkitu genuen, bakardadean bakarrik; esanguratsua benetan».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Dolores Urkola (Orendain).
 Gaur 90 urte. Muxu handi bat seme-alaben eta biloben partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza argazki lehiaketa

bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leiztako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

Bidaia Agentzia bidaide

Ernioeoa, 6-behea • 20150 Villabona
 Tel.: 943 692 693
 bidaide@gruposercom.com

ZOKKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
 guztien artean HITZAren motbila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira